

**2022/2023KO IRAKASLEEN LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

KIDEGOAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEAK, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK, MAISU-MAISTRAK ETA

2022ko urriaren 14an argitara eman dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, aipatutako kidegoetako funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketa deialdia egiten dituenak.

1º.- Parte hartzeko eskaera:

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzea formalizatzeko era bakarra hau izango da: Hezigunean-n eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzea. Eskaera horretara sartzeko internet <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / ONARTZEKO ESKABIDEA

Pasahitza izan edo gogoratu ezean, "Pasahitza ahaztu duzu" sakatu ezazu aipatutako helbidean, pasahitza berreskuratzeko.

2022ko urriaren 17tik azaroaren 7ra bitartekoa, biak barne, izango da eskaerak bete eta merituen eta baldintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.

Praktiketako funtzionarioek EZ dute merezimenduak egiaztatzeko inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, lanpostu hirueledunak eskatuz gero titulu edo ziurtagiriak egiaztatzeari lotutakoa izan ezik, titulu edo ziurtagiri horiek ez badira Pertsonalaren erregistroan jasota agertzen.

2º.- Aplikazio informatikoaren gida:

Prozesu horretan parte-hartzea errazteko asmoz, parte hartzeko eskaeraren on-line grabazioari buruzko gida bat eta merezimenduei buruzko beste gida bat emango da Internet-eko helbide hauetan argitara: <https://hezigunea.euskadi.eus> eta <https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/hezkuntza-langileak> ("Lekualdatze lehiaketa" atalean); halaber, prozesua behar bezala garatzeko behar den informazio guztia emango da ere argitara.

3º.- Merezimenduen baremoa:

3.1.- Zein merezimendu baloratzen dira?: Deialdiaren I. eranskinean adierazten direnak.

***GARRANTZITSUA:** deialdiaren I. eranskina zehatz-mehatz IRAKURRI behar da. Eranskin honetan baloratzen diren merezimenduak eta justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioak agertzen dira, baita Administrazioak berak ofizioz zenbatzen dituen merezimenduak ere (hots, lehiatzaileak ez du, horiek egiaztatzeko, dokumentaziorik aurkeztu behar). Gerta liteke atal bereko merezimenduak baloratzeko, kasu batzuetan ofizioz egitea, eta beste kasu batzuetan, ordea, parte-hartzaileak merezimendu horren egiaztagiria aurkeztea beharrezkoa izatea.



3.2.- Zein merezimendu baloratzen ditu, ofizioz, Administrazioak?, hots, lehiatzaileak ez du egiaztagiririk aurkeztu beharrik:

a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak (1.1.1, 1.1.2, 1.1.3, 1.2.1, 1.2.2 eta 1.2.3 atalak).

OHARRA: 2022-2023 lekualdatze-lehiaketatik aurrera, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, Auzitegi Gorenaren kasazio-epai baten arabera bidez bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira (1.2.1, 1.2.2. eta 1.2.3 atalei eragiten die)

b.- Euskal Autonomia Erkidegoko Katedradunen Kidegoetakoak izatea (2. atala).

c.- Ondorengo tituluak (3. Atala), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan agertzen badira:

- Doktore tituluak.
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den Masterraren unibertsitate-titulu ofiziala
- Graduaren unibertsitate-titulu ofiziala
- Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura teknikoak
- Lizentziaturak, ingeniariak edo arkitekturak
- Lanbide Heziketako Goi-mailako teknikaria

d.- EAEko eta beste erkidego batzuetako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak/tituluak, azken kasu horretan Langileen Erregistroan badaude. (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko hizkuntza-ziurtagiriak EZ dira zenbatzen Estatuko lekualdatze-lehiaketetan)

e.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxe publikoetan, beste autonomia erkidego batzuetako kasuan Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen badira, bete diren ondorengo zuzendaritza-karguak:

Zuzendaria, idazkaria, ikasketa-burua eta haren albokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea eta gaueko ikasketa-burua (4.1 eta 4.2 atalak)

OHARRA: 2022-2023 lekualdatze-lehiaketatik aurrera, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, Auzitegi Gorenaren kasazio-epai baten arabera bidez bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira.

f.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak eta Hezkuntza Sail horrek homologatu edo ezagututako irabazi asmorik gabeko instituzioek antolatuak, hots, Garatu ikastaroak eta EAEko Hezkuntza Sailak homologatutako ikastaroak (5.1 eta 5.2 atalak).

g.- Espezialitate berria lortu izana EAEan (5.3 atala)

h.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako ikerketa- edo berriztapen-proiektuetan parte hartzea (6.7 atala).

i.- Hezkuntza administrazioako lanpostuetan aritutako zerbitzu-urte bakoitzeko, lanpostu-mailako osagarria parte hartzen dueneko kidegoak daukanaren berdina edo altuagoa denean. (6.4 atala).



j.- Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako aukeratze-prozeduretarako epaimahaietan kide gisa parte hartzea (6.5 atala).

k.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren hizkuntz eskakizunak (6.7 atala).

3.3.- Lehiatzaileak erakutsi behar dituen merezimenduak:

I. eranskinen (merezimenduen baremoa) aurreikusten diren merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, argibide hauen 3.2. atalean adierazitakoaren arabera ofizioz zenbatzeko merezimenduak diren edo dagoeneko Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen diren kasuetan izan ezik. Batez ere irakaskuntzako beste funtzio batzuk aipatzen ditu (4.3 atala) eta 6.3 eta 6.6 atalak.

OHARRA: 2022-2023 lekualdatze-lehiaketatik aurrera, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, Auzitegi Gorenaren kasazio-epai baten arabera bidez bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira.

Langileen Erregistroan dagoen informazioa kontsultatzeko, honako helbide honetara jo beharko da: <https://hezigunea.euskadi.eus> (sartu erabiltzailea eta pasahitza) – Eremu pertsonala – Nire datu laboralak. Eta ondoren, honako apartatu hauek kontsultatu ahalko dira:

- Zerbitzu orria.
- Tituluak, prestaketak eta ziurtagiriak.
- Zuzendaritza-karguak.
- Kurtsoak kasuetan, Eremu Pertsonala – Nire prestakuntza sartu beharko da.

Zuzendaritza-karguei dagokienez, hurrengoak ikusi ahal izango dira:

- Zuzendaria, zuzendari albokoa, zuzendariordea.
- Idazkaria, idazkari albokoa, idazkariordea.
- Ikasketa-burua, ikasketa-buru albokoa, gaueko ikasketa-burua.
- Lanbide Heziketako ikastetxetako Administratzailea

Zure historiala osorik ez balego, merezimenduak aurkezteko epean aurkeztu beharko duzu aipatutako historialean agertzen ez diren merituak justifikatzeko dokumentazioa, Hezkuntza Sailaren datu-basean sartzeko eta lekualdatze-lehiaketan merezimendu gisa zenbatzeko.

4.- Merezimenduen baremoaren aukerak (merezimenduei buruzko dokumentazioa errazago entregatzeko)


ON-LINE eskaeran, 2010/2011ko, 2011/2012ko, 2012/2013ko, 2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017, 2017/2018, 2018/2019, 2019/2020, 2020/2021 edo 2021/2022ko lekualdatze lehiaketetan parte hartzen duten funtzionarioek “lehiakide guztiak betetzeko” atalean hurrengo aukera hauetako bat adierazi beharko du:

- A)** Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) puntuazioari eustea.
- B)** Merezimendu berriak gehitzea.
- C)** Barematze berria.

Aukera hauek (puntuazioari eustea, merezimendu berriak gehitzea, barematze berria) I. eranskinen atalean ofizioz konputatzen ez diren merezimenduei dagokie, bakar-

bakarrik. Ofizioz konputatzen diren merezimenduak automatikoki eguneratuko dira, erabiltzen den aukera edozein izanda ere

2010/2011ko, 2011/2012ko 2012/2013ko, 2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017ko 2017/2018ko, 2018/2019, 2019/2020, 2020/2021 edo 2021/2022ko lekualdatze lehiaketetan parte hartu ez zutenek ezin izango dute ondorengo aukerak hautatzea: “azken lehiaketaren puntuazioari eustea” edo “Merezimendu berriak gehitzea”.

OHARRA: Zein aukera erabiliko duzun erabakitzeko, 2010/2011ko, 2011/2012 2012/2013ko, 25 13/2014ko, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017, 2017/2018, 2018/2019, 2019/2020, 2020/2021 eta 2021/2022ko lekualdatze-lehiaketetan lortutako puntuazioak kontsultatu ahal izango dituzu. Kontsulta hori egin ahalko da <https://hezigunea.euskadi.eus>, helbidean, lekualdatze-lehiaketan sartu eta “berriak” atalean begiratu “Aurreko lekualdatze-lehiaketan puntuazioen kontsulta”; bestalde, eskaera on-line egiteko orduan, aukera hautatzeko baremoaren atalean,  ikonoan klik eginez parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketan izandako puntuazioa agertzen da.

A) Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) “puntuazioarekin jarraitzea” aukera hautatzeak honako hau esan nahi du:

- Parte hartu zenuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak a,) I. eranskineko 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan izan zenituen puntuazioekin jarraitzen duzula lehiaketa berri honetan.
- Ezin duzula barematzeko dokumentazio berririk aurkeztu aipatutako ataletan.
- Administrazioak ofizioz gaurkotuko dizkizula I. eranskineko 2., 5. eta 6. ataletan ofizioz doazen merezimenduak, betiere parte hartu zenuen azken lekualdatze-lehiaketan eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren hobetutako merezimenduak badira ⁱⁱⁱ
- I. eranskineko gainontzeko atalen merezimenduak baloratzeko, kasu bakoitzean I. eranskinen eta deialdiaren hemeretzigarren basean adierazten dena hartuko da kontuan .

B) “Parte hartu zenuen azken lehiaketaren ondorengo beste merezimendu batzuk gehitzea” aukera

Aukera honek suposatzen du parte-hartzaileak parte hartu zuen azkeneko lekualdatze-lehiaketan (2010/2011ko edo ondorengoak) 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan lortutako puntuekin ados dagoela eta parte hartu zuen azkeneko lekualdatze-lehiaketan barematutakoei geroztik izandako meritu berriak gehitu nahi dituela (*1).

Kasu horretan, eta aipatutako atalei dagokienez, parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epe-amaieraren ondotik amaitutako eta lortutako merezimenduak, aurkeztu beharko duzue (kasuaren arabera, 2010eko abenduaren 14tik, 2012ko urtarrilaren 27tik, 2012ko azaroaren 22tik, 2013ko abenduaren 20tik, 2014ko azaroaren 24tik aurrera, 2015ko abenduaren 21etik aurrera, 2016ko azaroaren 28tik aurrera, 2017ko abenduaren 13tik aurrera, 2018ko azaroaren 27tik aurrera, 2019ko abenduaren 19tik aurrera, 2020ko azaroaren 26tik aurrera edo 2021eko abenduaren 1etik aurrera) lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Aipatutako atalen edo azpiatalen batean puntuazio gehiena atera badute, ez da beharrezkoa dagokion atalean edo azpiatalean meritu berriak gehitzea.



Atal horietako merezimendu berriak adierazitako daten aurrekoak badira, ez dira barematuko. Aitzitik, beste atal edo azpiatal batzuei dagozkien merezimenduak aurkeztu ahal izango dituzte.

C).- “Barematze berria “ aukera

Aukera hau honako kasuren batean dagoenarentzat da:

- Parte hartu zuten azkeneko lekualdatze-lehiaketa data baino lehenagoko 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletako merezimenduak barematzea nahi dutenek edo atal horietan egindako baremazioarekin ados ez daudenentzat. **(*1)**
- 2010/2011ko edo ondorengo lekualdatze lehiaketetan eta aipatutako ataletan egindako baremazioarekin ados ez daudenentzat.
- 2010/2011ko, edo ondorengo lekualdatze lehiaketetako deialdietan parte hartu ez dutenentzat.
- 2022ko irailaren lehen karrerako funtzionario izendatuta egon eta oraindik destinatorik lortu ez dutenentzat.
- Erkidego honetan destinoa lehen aldiz 2019/2020 ikasturtean lortu zuten beste autonomia erkidego batzuetako funtzionarioentzat eta lehen aldiz parte hartzen dute une horretatik.

Atal guztiei dagokien ziurtagiriak, deialdian aurreikusten den arabera, aurkeztu beharko dituzte baloratuak izan daitezen.

Ofizioz barematzen direla I. eranskinean horrela xedatzen diren merezimenduak.

GARRANTZITSUA

Merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa 2022ko urriaren 17tik azaroaren 7ra bitartean entregatu beharko dela, baita on-line eskaera bete ere, hartu beharko da kontuan.

Aplikaziora sartzeko erabiltzailearekin edo on-line parte hartzeko eskaera grabatzeko prozesuarekin gerta litezkeen intzidentzia teknikoak garaiz konpondu ahal izateko, funtsezkoa da erabiltzailea eta pasa-hitza berreskuratzea (gogoratzen ez badira) gomendatzen da azken unera arte ez uztea, ezta eskaeraren grabazioa ere.

Espezialitateak eskuratzea:

Beste espezialitate batzuk aitortzeko, eskaera bat aurkeztu beharko da EIZUko Enplegatuaeren Atariaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduta. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena jaulgiko du, eskaera onartuz edo ezetsiz. Espezialitatea edo espezialitateak aitortzeko eskaera lekualdatze-lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin behar da.

(*1)



AZKEN LEKUALDATZE-LEHIKETEN DEIALDIAK		
<u>LEHIAKETA</u>	<u>EHAA</u>	<u>Eskabideak aurkezteko epearen amaiera</u>
2010/2011	2010/11/22	2010/12/14
2011/2012	2011/12/16	2012/01/27
2012/2013	2012/10/31	2012/11/22
2013/2014	2013/12/02	2013/12/20
2014/2015	2014/30/10	2014/11/24
2015/2016	2015/12/02	2015/12/21
2016/2017	2016/10/27	2016/11/28
2017/2018	2017/11/20	2017/12/13
2018/2019	2018/10/31	2018/11/27
2019/2020	2019/11/29	2019/12/19
2020/2021	2020/11/04	2020/11/26
2021/2022	2021/11/12	2021/12/01